



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2021eko urtarrilaren 11koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearena, Unibertsitateko katedradunen kidegoetako plazak betetzeko lehiaketetan onartutako eta baztertutako lehiakideen behin betiko zerrenda onartzeko dena.

UPV/EHUko errektorearen 2020ko urriaren 27ko erabaki bidez (azaroaren 13ko EAO eta azaroaren 20ko EHAA), unibertsitateko katedradunen kidegora sartzeko lehiaketaren deialdia egin zen, betiere barne promozioko plazetarako erreserbatuta, irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuak jasotzen duenez. Dekretu horren azken xedapenetatik bigarrenak abenduaren 21eko unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoaren 62. artikulua aldatu du. Amaituta onartutako eta kanporatutako behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), Errektorego honek ondokoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda. Zerrenda Leioako Errektoregoko lehiaketan ataleko iragarki oholean dago. Interneteko webgune honetan ere kontsulta daiteke: <http://www.ehu.eus/> (Irakasleak- Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitaratzea onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, erabaki honen eranskin gisa agertzen dena. Bertan adieraziko da zein izan den baztertuta uzteko arrazoia.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakioke UPV/EHUko errektoreari, erabakia web-gunean argitaratu eta hilabeteko epearen barruan, urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean (123. artikulua eta hurrengoak), adierazten den moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin dakioke administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian (zerbitzu harremana sortzeari buruzkoa ez bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan (zerbitzu harremana sortzeari buruzkoa bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioan, 2021eko urtarrilaren 11an

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2017ko urtarrilaren 25ekoa, errektorearena, 2017/02/03ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30604766T MARIA
INMACULADA
GUERRICAGOITIA
(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 30604766T MARIA
INMACULADA GUERRICAGOITIA (R: Q4818001B)
Nombre de reconocimiento (DN):
2.5.4.13=CERTIFICADO SECRETARIO, 2.5.4.97=VATES-
Q4818001B, ou=Ordezkaritza - Certificado de
representante, o=UPV - EHU,
serialNumber=30604766T, sn=GUERRICAGOITIA
MARINA, givenName=MARIA INMACULADA,
cn=30604766T MARIA INMACULADA
GUERRICAGOITIA (R: Q4818001B), c=ES
Fecha: 2021.01.12 08:58:42 +01'00'

Izpta.: Inmaculada Guerricagoitia Marina





Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZEN DATUAK:

Plazaren zenbakia: 1. Kodea: CUV6/1-D00212-2. Kidegoa: Unibertsitateko katedradunak (lotutako lanpostua). Jakintza arloa: "Psikiatria". Medikuntza Espezialitatea: Psikiatria. Saila: Neurozientziak. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Arabako Unibertsitateko hospitalea). Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: "Psikiatria".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Deiturak eta izena: ANA MARIA GONZALEZ PINTO ARRILLAGA
NAN: ***5334**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez

Plazaren zenbakia: 2. Kodea: CUC8/1-D00233-18. Kidegoa: Unibertsitateko katedradunak. Jakintza arloa: "Zuzenbidearen Filosofia". Saila: Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia. Ikastegia: Zuzenbide Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: "Zuzenbidearen Teoria".

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Deiturak eta izena: JOSE RAMON BENGOTXEA CABALLERO
NAN: ***4492**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez